



BARREN

TOKIKOM

# Azken koplak



# Gremioen gida

Aroztegiak  
Elektrizitatea  
Igeltseritza  
Iturgintza  
Leihoak  
Pintura

## ITURGINTZA

**PAGOAGA S.A.**  
BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migal Urruzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585  
tende@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com

**BILTEGIA**  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
taller@pagoagasa.com

**ELGOIBAR**

**FONTANERÍA**  
**Ibámar**  
ITURGINTZA

San Roke 10-A, behea B  
Elgoibar  
Floren Cid: 647 463 436  
ibamar@euskalnet.net

**ongi** iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
ongi@ongielgoibar.com  
www.ongielgoibar.com

**TELLABIDE**  
ITURGINTZA

Azpilgoeta 7 behea - Mendaro  
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062  
iturgintzatefabbide@hotmail.com

**SANTANA**  
Igor Santana  
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
santanaiturgintza@gmail.com

## AROSZTEGIAK

Aroztegia Carpintería  
**ASIMA**  
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225  
asimaaroztegia@gmail.com

**Ulazia**  
AROSZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albixuri industriagunea, 1-O/ 1-P  
943 740 547

**BIENA S.L.**  
AROSZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@bicna.eus

f

**MAR**  
AROSZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 behea  
943 531 471  
609 054 978  
carpinteriamar@hotmail.com

f

**iraolagoitia**  
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain Industriagunea, 9  
20650 Mendaro  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485  
www.iraolagoitia.com

## ELEKTRIZITATEA

**CARRANZA,**  
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga 10, 6.B  
Elgoibar  
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 626 555 999

**egoluz**  
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462  
Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345  
Pedro Migal Urruzuno, 14 behea  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697  
ego.luz@hotmail.com

**iparelek S.L.**  
elektrizitatea

Kiliman hiribidea, 1 - Mendaro  
943 530 356

iparelek@gmail.com  
iparelek@iparelek.com

## LEIHOAK

**LODOSO**  
LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
lodosofj@gmail.com  
Tel.: 943 74 34 90

## IGELTSERITZA

**A.Garate**  
Era guztietako  
igeltseritza lanak  
egiten aditua  
angelmgarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 behe - 2. zkia  
Elgoibar

**610 226 651**

**I.E. ARANDIA**  
ERREFORMA ETA LEIHOAK

Urazandi, 22 behea - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko  
koordinazioa.  
Pladurarekin ere  
lan egiten dugu.


## PINTURA

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar  
943 741 552  
606 431 120  
biok@biokdekorazioa.com

Gremioen gida

## Kaleko protagonistak



**E**ta zure ustez? Hori zen herritarren usteak edo iritziak kalean labur jasotzeko erabiltzen genuen atala. Elgoibartarrek jakin nahi izaten zuten bizilagunek gai batzuei buruz zer pentsatzen zuten, baina guretzat ez zen batere erraza izaten inkestako galdera erantzuteko prest zeuden herritarrek topatzea. Jendeari "BARREnerako galdera bat erantzungo diguzu?" galdetu orduko baziren ezetza eman edo beste aldera begiratzen zutenak, eta baita, jakina, kazetariak gerturatzen ikusi orduko ihesi kontrako espaloira pasatzen zirenak. Zenbat laguni ez ote genien galdetzen, sei iritzi batzeko!

Horregatik, nekez ahazten ditugu baietza eman ziguten askoren aurpegiak. Hura lasaitua hartzen genuena norbaitek birritan saiatu beharrik gabe eta kasik-kasik erreguka hasi beharrik gabe baietza ematen zigunean. Eta hura tristura gero hasierako baietza ezetza bihurtzen zenean. Izan ere, iritzia emateak baino gehiago botatzen zituen atzera herritar asko argazkia atera beharrak. Erreparo handia dio jendeak argazkitan agertzeari, bai lehen eta bai orain ere.

Baina iritzia eta argazkia lotzeak ere ez zuen esan nahi lana amaitua zenik. Garai hartan errebelatzera eramaten genituen argazkiak, eta izaten genituen sorpresak ere. Begiak itxita agertu zirela edo eurena ez zen keinu batekin bistatu zirela eta segi berriro kalera, elkarrizketatu gehiagoren bila. Denbora luzez ibiltzen ginen kalean atzera-aurrera, gure ondotik jendea ihesi genuela. Horregatik oso eskertua gaude gurean agertu diren herritar guztiei. Hona hemen lehen kale-inkestako hiru protagonista.



**AITOR SASIAN**

Ekonomialaria  
39 urte

**G**ogoan daukat, bai, lehenengo Kale Inkesta hartan atera nintzela, eta gogoan daukat baita ere egin zidaten galdera ere. 13 urte nituen orduan, eta ez zidan askorik inporta izan erantzutea. Gainera gaiak oso konprometitua izaten ez zirenez, erraz erantzuten genuen kalean uste-kabeen harrapatuta ere. Orain BARREnekoek kalean galdetuz gero ez dakit erantzungo nukeen, badakidalako herritar askok irakurtzen zutela atal hori.



**MANU CONDE**

Elektrizista  
62 urte

**G**ogoratzen dut, bai. Ez nekien lehenengo izan zenik, baina kalean galdetu zidatela, bai. Galdera eta eman nuen erantzuna ere gogoan daukat. 'Oientzero ala erregeak?' izan zen galdera eta nik esan nien gurean erregeak izaten zirela, ordura arte ez baitzen Oientzero ospakizunik apenas egiten. Nik ez dut sekula erreparorik izan BARRENen irteteko. Beste elkarrizketa bat ere egin zidaten odol-emaila izateagatik.



**IZASKUN BELATEGI**

Jubilatua  
72 urte

**E**z daukat gogoan kalean galdera egin zidateneko hura, baina gaia zein izan zen jakinda badakit gai horrekin herrian jendea bueltaka ibili zela. Garai batean Oientzerorik ez zen izaten kalean eta ni orduan horren aldeko nintzen. Horregatik, ez nuen erantzuteko zalantzarik izan. Kalean egunkari edo telebistaren baterako norbait galdezka etorri gero, ihes egiten saiatzen naiz ni beti, baina BARREnerako izanda nola esan bada ezetz.

AINHOA ETXEBERRIA

Nutrizionista



## Tiroidearen gaixotasunak

gertatu arte. Eta horregatik, tratamenduen erantzunak luzarora igartzen dira.

Iodoak duen papera: Oso garrantzitsua da, berari esker sortzen baitira hormonak tiroidean. Egunean 150 mikrogramo baino gehiago ez da gomendagarria.

Tiroidearen gaixotasunak eta tratamenduak: Bi arazo mota egon daitezke: hormona larregi ekoiztea (hipertiroidismoa) edo gutxiegi (hipotiroidismoa).

*“Tiroide hormonak gorputzeko aktibitate gehienen erritmoak kontrolatzen ditu”*

Hipertiroidismoa: Bere jatorria ez da argia, baina itxura guztien arabera,

gehienetan, prozesu autoinmune batekin lotuta egoten da.

Hipertiroidismoaren ezaugarriak: tiroidearen handitasuna, exoftalmia (begiak irtenda), bero jasan ezina, izerdi asko, pisua galtzea, beherakoa, ahulezia, urduritasuna, insomnioa eta eskuetako dardara.

Hipotiroidismoa: Kasu honetan ere tiroideko zelulak autoinmunitatearen biktima izan daitezke, kontrako efektuarekin baina: estimulatu beharrean zelula ekoizleak suntsituta. Iodo falta (elikadura) edo iodoa transformatzeko entzimekin arazoak izaten dira.

Hipotiroidismoaren ezaugarriak: tiroidea inflamaturik edo hipertrofia, logure handia, gorputz eta buruko alferkeria, bihotz-taupaden maiztasun eta indarraren jaitsiera, odol kantitatea gutxitzea, pisua irabaztea, edema orokorra (likidoz puztuta egotea), idorreria, trofismo arazoak (ileak gutxi hazi, azal lehorra...).

Tiroidea lepoan dagoen tximeleta formako guruin bat da, klabikularren gainean dagoena. Tiroide hormonak gorputzeko aktibitate gehienen erritmoak kontrolatzen ditu. Baita erretako kalorien abiadura eta bihotzaren taupaden abiadura ere.

Tiroideak hormona metaboliko bi ekoizten ditu: tiroxina (T4) eta triiodotironina (T3). Guruinean bertan ditu gordeta, behar denean odolera askatzeko. Hau horrela izanik ere, efektua ez da momentuan gertatzen: orduak edo asteak pasatu daitezke hormona isurtzen denetik bere eragina



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldeggi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloa Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

## ▶ MAITASUN KEINUAK

Zahartzen baldin banaiz, eta betikoa ez baldin banaiz, izan pazientzia eta ulertu. Alkandoraren gainean jantaria botatzen badut, eta ahazten baldin badut oinetakoak lotzen, gogoratu zenbat ordu eman nituen zurekin gauza bera egiten.

Zurekin berba egiten dudanean, eta zuk ezagutzen duzun istorioa behin eta berriro esaten badut, ez moztu eta entzun: umea zinenean loak hartzeko neuk ere behin eta berriro kontatu behar izan ohi nizun ipuin berbera zure begitxoak itxi arte. Besteen aurrean nire beharrak egiten baditut ez lotsarazi; ez dut horren errurik, ezin dut kontrolatu. Pentsatu zenbat aldiz lagundu nizun umetan txiza egiten irria ahoan.

Ez egin errietarik bainatzerik ez badut nahi; gogoan izan zer-nolako trikumiluak asmatzen nituen zure garbiketa atseginagoa izateko. Onartu eta barkatu: umea orain neu bainaiz.

Batzuetan ezjakin eta baldar ikusten banauzu, ez egin nire lepotik barre, zuk ikasitako gauza asko neuk erakutsi dizkizut-eta. Zangoek huts egiten badidate nekatuta nagoelako, eman zure esku samurra eusteko neuk egiten nuen bezala zu oinez hasi zinenean.

Ez egon triste honela ikusteagatik, eman zure bihotza eta ulertu. Zure ibilbidearen hasieran lagundu nizun bezala lagundu neurea bukatzen.

(Eskerrik asko, San Lazaro erresidentziako langileei Juanitaren izenean, ahaztu gabe bertako egoiliar guztiak)

**Juan Luis Mugertza Unanue**

## ▶ INBIDIA SANOA SENTITU NUEN

Azaroaren 9an Untzagako Erretiratuen Egoitzara joan nintzen bilera batera. Eibarko Udal ordezkariak eta herriko erdiguneko bizilagunak elkartziren bertan, izan ere, Eibarren bilerak

egiten dituzte auzo edo guneeetako herritarrekin orain dela hainbat urtetik hona. Bigarren urtez joan eta inbidia sana sentitu nuen, berriz ere, ikusita gure herriko agintariak ez bezala (beren lubakian babesten baitira) Eibarko alkateak, hainbat zinegotzik (tartean Hirigintza eta Zerbitzuetakoa), Udal teknikariek eta Udaltzainburuak aurpegia eman eta herritarren iradokizun, kritika eta kexei erantzuten zietela.

Noiz edo noiz proposatu izan dut gure herrian ere horrelako ekintzak egitea, baina gaur arte ez da egin. Ane Beitiari idatzi eta iazko maiatzaren 26an BARRENEN argitaratutako gutun batean esan nuen ulertzen dudala Udal agintarien jarrera. Beharbada uste dute parte-hartze eredu hau arriskutsua izan daitekeela beraientzat, irabazteko gutxi eta galtzeko asko izan baitezakete, beren alderdi politikoak gehiengo absolutua baitu Udalean. Beraz, hori baliatu dezakete beraientzat ezerosoak diren galderei ez erantzuteko. Esaterako, Hirigintza zinegotzi Josu Arraizi informazio panelei buruz BARRENEN azaroaren 17an argitaratutakoa. Hala ere, uste dut, jarrera honekin kaltetuek Elgoibarko herritarrek eta herria bera direla. Hortaz, espero dut egunen batean gauzak aldatzea eta auzo edo guneeetako bilerak gure herrian ere egitea. Bitartean zera baino ezin dezaket esan: azaroaren 9an inbidia sana sentitu nuen.

**Juan Angel Garcia Calleja**

## ▶ LANGABEZIA DATUAK DIRELA ETA GALDERAK

Elgoibarko Langabezia datua %10,3koa da (551 pertsona). Baina hori al da errealitatea?

Ez. Kontatzeko moduan ez da kontuan hartzen derrigorrez nahi baino ordu gutxiago lan egiten duen jende

ren ordu kopurua. Langabezia datu erreala altuagoa da: EAEn kontratuen %40 lanaldi partzialak izan dira lehengo urtean.

Baina zer dela eta dago hainbeste langabezia, soldatak oso baxuak baldin badira, eta lan erreformaren ostean langileak kontratatzeke baldintzak sekula baino egokiagoak direnean enpresariarentzat? Batetik, gaurko lan egiteko moduan inbertsioak kalifikazio handiko sektore eta enpresetara bideratzen direlako, eta horietan lanpostu kopuru orokorra mugatua delako: Elgoibarren, kasurako, industriak, balio gehien sortzen duen sektoreak, aberastasun guztia %58 sortzen du, baina lanpostuen %38. Bestaldetik, hazkunde ekonomikoaren hobekuntza etengabe errepikatzen den arren, eta egia izanda ere, sortzen den aberastasunaren banaketa oso desiguala da. Ondorioz, gero eta jende gehiagok gero eta diru gutxiagorekin egin behar dio hileroko gastuari aurre. Ondorioz, guztion artean egiten dugun gastua urteekin gutxituz doa. Eguneroko zerbitzuetan gero eta gutxiago gastatzen behartzen gaitu horrek. Ondorioz, leku horietan lanpostu beharra gero eta txikiagoa da. Elgoibarren kasurako, zerbitzuen arloak aberastasunaren %37 sortzen du, baina lana ematen dio langileen %56ri. Guztiok gutxiago gastatzerakoan nabarmen igartzen da zerbitzu batzuetan.

Bukatzeko, joera hauekin, soldatak eta lan baldintzak okertuta ere ez da lortzen lana egotea guztientzat, hazkunde ekonomikoa izanda ere, eta hori egonkortzen ari da: jende askok ezin dio hileroko gastuari aurre egin. EAEn %16 daude pobrezia arriskuan eta %5 pobrezia gorrian. RGI sistemak laguntzen du kasu horietan: Elgoibarren 261 kasu bideratu ziren lehengo urtean.

## Gazteek egindako galdetegiaren arabera hobetu behar asko ditu liburutegiak



**H**erriko gazteek liburutegiari buruz duten iritzia jasotzeko galdetegia egin du Jaiki gazte taldeak. 166 lagun erantzunak jaso eta aztertu ondoren daturik esanguratsuenak zabaldu dituzte. Ordutegia eta egutegia, ikasteko erosotasuna, isiltasuna eta baliabideak (ordenagailuak, liburuak...) izan dira landu dituzten gaietako batzuk.

%85,2arentzat ordutegia desagokia edo oso desagokia da. Gehienek eskatu dute eguerdian irekita egotea edo itxiera tarte murriztea, arratsaldeetan beranduago ixtea eta azterketa garaian ordutegiak luzatzea. Egutegiarekin ere %83,5 ez dago konforme eta azterketa garaian egutegia zabaltzea, asteburuetan zabalik egotea (gutxienez larunbatetan) eta opor garaian moldatzea da egin dituzten eskaerak. Bestalde, erantzun dutenen %89,6arentzat liburutegiak ez ditu baldintza egokiak eskaintzen eroso ikasi ahal izateko. Hori konpontzeko argiztapena hobetu, ikasteko gunea handitu eta isiltasuna eta intsonorizazioa hobetu beharko lirakeela diote. Isiltasunaren arazoari irtenbidea emateko hainbat proposamen aipatu dituzte: intsonorizazioa hobetzea, adin eta funtzio desberdinetarako eremuak hobeto bereiztea edo ikasketa gunea hobeto banatzea, adibidez.

### Zapatuan bilera gaztetxean

Liburutegiko baliabideen ataleko balorazioa izan da positiboena, eta hala ere, desagoki edo oso desagokizat jo dute erantzun dutenen 10etik 8k. Ordenagailu "gehiago eta hobeak", liburuen "ordena hobeak", entxufe gehiago eta sare hobeak behar direla uste dute. Espazioaren banaketaren hutsunari aurre egiteko, berriz, talde lanetarako gelak gehitzea, haurren gunea bereiztea, harrera bereiztea edo ekintzetarako (hitzaldiak, tailerrak...) gune propioa egitea proposatu dituzte.

Galdetegia bete duten herritarrei eskerrak eman dizkie Jaikik eta otsailaren 3an, 12:00etan, datuak elkarrekin aztertzeko, gaztetxean egingo duten bilera parte hartzerantz animatu ditu. Asmoa da aldarrikapen zerrenda bateratu bat adostea epe motzerako aldaketekin, baita epe ertainera eraikiko den liburutegi berrirako eskaerekin ere.

Elgoibarren zaborren-tasa bakarria izango da herriko etxe guztientzat

Elgoibarko Udalak zaborren-tasa egokitzea adostu du edukiontzi grisa jarriko dutela-eta. Hemendik aurrera etxebizitza bakoitzeko 193,87 euroko tarifa ordaindu beharko da. Azken aldaketetan adostu zen edukiontzi marroia erabiltzen zutenek 183,88 euro ordaintzea eta sistema horrekin bat egin ez zutenek, berriz, 220,66 euro. Orain, ordea, edukiontzi marroi eta grisa erabiltzeko txartela derrigorrezkoa izango denez, denek kopuru bera ordainduko dute. Ordainketari dagokionez ere izango da aldatetarik. Izan ere, orain arte, urtean bi aldiz egiten ziren, baina aurten hiru hilabeteko bi-lehenengoa ordenantza zaharren arabera, eta bigarren hiruhilekoa ordenantza berriaren arabera, eta sei hilabeteko bat egingo dira.

Edukiontzien erabilera ez da mugatua egongo. Grisa, marroia bezala, erabiltzailea identifikatuko duen txipdun txartel bidez irekiko da. Atzo hastekoak ziren edukiontzi berde guztiak kentzen eta oraindik txartelik ez daukatenek doan eskuratu ahal izango dituzte Kultur Etxean.

Zabor bilketaren harira Debabarrenako Mankomunitateak 2017ko azaroko birziklapen tasen berri eman du. Elgoibarren, zabor mota guztiak kontutan hartuz, %49,61 birziklatu da. Debabarrena osatzen duten beste 8 udalerrien batez bestekoa baino puntu bat gehiago. Urtez urte birziklapen maila igotzen ari da; 2016an %44koa izan zen eta 2015ean, %43koa. Espainia zein Europan mailan jarritako birziklapen tasetara heltzeko, Udalak ezinbestekotzat jo du gizartearen sentsibilizazioa eta inplikazioa eta sistema aldaketa datorrenez, Udalak kontzientziazio eta informazio kanpaina jarriko du abian.

## Erabilera anitzeko etxeari buruz kontsulta publikoa jarri du abian Elgoibarko Udalak

Elgoibarko erabilera anitzeko etxebizitza 2004an sortu zuten eta Deba Kosta azpieskualdeari (Mutriku, Deba, Mendaro eta Elgoibar) gaur egun erantzun egokia emateko, ezinbestekoa irizten diote etxebizitza horren funtzionamenduari buruzko helburuak eta arauak aldatzea. Deba Kostako gainontzeko herriek Elgoibarkoa baliatuko dute. Araudiaren helburu nagusia da etxearen onuraduna etxera sartzeko prozedura eta erabiltzeko dituen baldintzak zehaztea.

Larrialdi egoeretan (gizarateratze arazoak dituen jendeak) aldi baterako harrera egiteko erabili nahi da etxebizitza hori. Aurreko araudia egin zenetik etxebizitza horretan sartu daitekeen jende mota "gero eta anitzagoa eta bereziagoa" izanik ezinbestekoa zaie moldatu eta eguneratzea.

Araudi aldaketaren inguruko ekarpenak otsailaren 15era arte egin daitezke. Hainbat bide daude horretarako: *partaidetza@elgoibar.eus* helbidera idatziz, Herritarren Arreta Zerbitzuan dagoen Elgoibarko Udalaren Erregistro Orokorrean (Kalebarren plaza, 3) edo Udaleko webgunetik (*www.elgoibar.eus*).

## 16.000 ikusletik gora iaz Herriko Antzokian

Zinema, ikuskizun, Udal Musika Bandaren kontzertu eta aurrez grabatutako emanaldiak ikustera, guztira, 16.381 pertsona pasatu ziren iaz Elgoibarko Herriko Antzokitik. Udaleko Kultura Sailak emaitzen balantze oso positiboa egin du. Zine Bonuak izan duen harrera ona ere nabarmendu du, guztira 933 erabili dira-eta. Emanaldirik jendetsuenak honakoak izan dira: *Go!azen* antzerki musikala (790 ikusle), *Pirritx*, *Porrox* eta *Marimototsen Tipi-Tapa korrika* (628 ikusle) eta *Handia* filma (566 ikusle).

## Giza kate luzea egingo du Gure Esku Dagok ekainaren 10ean

Gure Esku Dago plataformak Euskal Herrian inoiz egin den giza katerik handiena (201,9 kilometro) iragarri du ekainaren 10erako. Donostiatik abiatu, Bilbotik pasa, eta Gasteizen amaituko da. Giza-katea osatzeko 100.000 pertsona beharko direla aurreikusi dute antolatzaileek. Anjel Oiarbide GEDren bozeramaileak azaldu duenez, "bost urtean egin, ikasi eta lortu dugun guztiaren emaitza izango da ekainaren 10a, eta herritarren erabakitzeko arrazoiak erakundeetara bideratuko ditugu", azaldu du.

Elgoibarri 2 kilometro osatzea egokitu zaitzaio eta horretarako 1.000 herritar inguru beharko direla aurreikusi dute. Mendarok, berriz, kilometro bat osatu beharko du 500 lagunekin. Datozen hilabeteetan emango dituzte. Bestalde, giza kateaz gain, datozen bost hilabeteetan erabakitzeko eskubidearen aldeko 2019 arrazoi bilduko dituzte herriz herri.

## Mozorro tailerra eta festa egingo dituzte Elgoibarko ludotekan



Inauteriak gerturatzen ari dira eta jendea hasi da mozorroak prestatzen. Elgoibarko ludotekako bazkideei ere hainbat mozorro eredu eman dizkiete eta aukeratu ondoren, bakoitzak berea egingo du, beti ere, hezkidetza baloreak kontuan hartuta. Mozorro tailerrak otsailaren 6, 7 eta 8an izango dira 17:00etatik 19:00etara bitartean.

Mozorroak prestatuta, ostiralean, otsailaren 9an, mozorro festa egingo dute 17:00etatik 19:30era. Photocallean argazkiak atera eta merienda jan ondoren lehiaketaren txanda izango da. Guztira lau mozorro sarituko dituzte: etxeko mozorrorik landuena; genero estereotipoekin bat ez datorrena; orijinalena eta bertaratzen direnek aukeratutakoa.

## ▶ KEPA URAIN

SANTA AGEDA ESKEKO  
ETXEGIÑA TALDEKO KOPLARIA

*Santa Ageda bezpera dugu... kantuak entzungo dira bihar Elgoibarko kaleetan. Etxegiñak eta haren lagunek irekitako biderei jarraituz makina bat herritar arituko da koplakantari Kepa Urain koplari eta gidari dutela. Etxegiñari hartu zion lekukoa Urainek eta ari agindu bezala ahal izan duen artean jarraitu du mendarorarak bere bertsotarako dohaiak kanporatuz, herritarrek gozaraziz eta behartsuei lagunduz. Agur esango duen arren, bere bidetik jarraituko duen norbait egongo ote den kezka txiki hori dauka oraindik barruan.*

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

♦ **Koplari hasi zinela bete dituzu 38 urte eta aurten agur esango diozu jardunari. Baina aurrez ere ibiltzen zinen Santa Ageda eskeko taldean, ezta?**

1960. urtean gainontzekoekin ateratzen nintzen kantura, soldadutzara joan aurretik. Gure aita zenak, ez dakit zergatik, baina hitzetik hitzera dena errimaz egiten zuen. Nik orduan ez nion garrantzirik ematen, baina gero erreparatzen hasita ohartu nintzen hortaz, ez bainintzen ez ikastolan ezta bertso eskolan ibili.

♦ **Taldean bertsoak gustuko zenituelako hasi zinen, baina nola hartu zenuen Etxegiñaren lekua?**

1972an ezkondu eta Arrasatera joan nintzen. Han bertsolaritza jarraitzen nuen plazarik plaza eta txapelketetan. Aubixan egin zen behin jaialdi bat eta hara joan nintzen. Antxon Haranburu ikastolako irakaslearekin kantatu nuen mezatan, gero bazkaria izan zen eta bazkalostean bertso saioa. Han ari ginela Santi Kortabarrak ez zidan begirik kentzen eta banekien zergatik zen. *Etxegiña* zaharrekin hilero egoten nintzen Elgoibarren eta Santa Ageda eskea izaten genuen berbe-



“Beti izan dut maitea euskara, eta bertsoaren bitartez jolasten naiz euskararekin”

tarako gai. Santi Kortabarrak etorri zitzaidan esanez Etxeginak ezin zuela koplari segi eta nik nola esan ezetz? Abenduan German Uriguen *Etxegiña* bere makilarekin etorri zitzaidan eta negarrez hasi zen, ez penaz, kezkatuta zegoelako bere orde zuek jardungo zuen. Esan nuen urte hartakoa beteko nuela, baina beste baten bila hasteko, baina orduan hasi nintzen eta 38 urte joan dira. Germani esan nion jubilatuko arte egingo nuela eta 19 urte dira lanetik erretiroa hartu nuela.

♦ **Zer da zuretzat Santa Ageda eskea?**

Niretzat bi arrazoi dauzka koplakantari ibiltzeak. Batetik, 1969an nire anaia zena hil zen eta nire koinata alargun gelditu zen bi alaba biki eta mutiko txiki batekin. Garai hartan Santa Ageda eskean jasotako dirua ez zen Caritasera eramaten, herrian beharrean zegoen norbaiti ematen zitzaion (diru faltan, alargun,

gaixo...). Urte hartan nire koinatari eman zioten eta nik nola esan bada ezetz. Bestalde, ni beti izan naiz bertsolaria eta Santa Ageda eskea bertsolaria lotu duen adar bat da.

♦ **Bertsolaritzarekin beti izan duzu lotura, beraz.**

Nik lehen aldiz Mendaroko txapelketan parte hartu nuen 26 urterekin, sekula nire eskutatik liburu bat bera ere pasa gabe, dena entzutek jasota. Imanol Lazkano bertsolariak behin esan zidan: “Zuek bertsoa ez duzue entzuten, bertsoa jan egiten duzue”. Mendaron hiru edo lau aldiz kantatu nuen txapelketan eta Elgoibarren ere; Arrasaten eta Leintz bailaran, bost aldiz. Bestalde, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian hartu nuen parte 1982an, Lesakan. Antonio Mari Loizaletxe, Joxe Lizaso, Jon Azpillaga, Jon Mugartegi, Xabier Amuriza, Manuel La-





sarte eta beste hainbatekin kantatutakoa naiz. Beti izan dut maitea euskara eta euskararekin bertsoaren bitartez jolasten naiz.

#### ◆ Koplari hasi zinenen bat-batean ala prestatutako koplekin aritzen zinen?

Lehenengo lau urteetan nik bat-batean egin nuen. Baina abadea konturatzen den bezala zein ari den meza entzuten eta zein ez, nik ere banekien zein zegoen kanturako gogoz eta zein ez. Garai hartan gero eta jende gutxiago ateratzen zen kantura eta euskaldunak oso gutxi, beraz, inprobisatutakoa jasotzeko eta errepikatuzeko ahalmenik ez zuten. Beraz, kopia batzuk idatzi eta handik aurrera paperetik kantatzen ditugu, baina nik egindakoak dira, zenbakiak jarrita dituzte eta horren arabera esaten diet zein kantatu.

#### ◆ Zeri buruzkoak dira koplak?

Askotarikoak izaten dira gaiak. lazkoak esaterako bortxakeriari eta tratu txarrei buruzkoak ziren. Horrek, gainera, badu nolabaiteko harremana Santa Agedarekin. Hura bortxatu egin zuten eta bu-larrak moztu zizkieten.

#### ◆ Zu bakarrik aritzen zara koplari?

Bi taldetan banatzen gara auzoetan barrera joateko eta gero kalean denok batera. Taldeetako batean ni joaten naiz, eta bestean, nik idatzitakoak kantatuz beste bat. Aurten nik agur esango dut eta lekukoa hartuko dute, baina koplariak baino gehiago kopia kantariak izango dira. Izan ere, koplari izateko bertsolari izan beharra dago.

#### ◆ Herritarrek nola hartzen zaituztete?

Zoragarri. Elgoibar beti ondo portatu izan da. Gainera, segituan konturatu izan naiz. Oraindik ere batzutan nirekin paperetik kantuan ari direnei esaten diet paperarekin ahazteko. Hainbat leku bereziak dira eta han bat-batean kantatzen dut, batzutan burura etorritakoa botatzea errazagoa ere bada. Gogoan dut, adibidez, Errosario kaleko taberna bateko jabea kanpotarra izan arren herrian ezaguna zena, tabernara gerturatu orduko ardo botilarekin eta mila pezetako biletearekin ateratzen zela, ez poltseroarengana, koplariarengana baizik. Nik ez nuen beste inor ezagutzen horrelako bileterik ematen zuenik. Kantuan hasten nintzeanean, ulertu ez arren, sekulako malkoak ateratzen zitzaizkion Elgoibarren nola baloratu zuten gogoratuz-edo. Horrela hartzen gintuela ikusita behin kopia bat erderaz bota nion berak ulertzeko: *A los artistas nos recibis con aplausos y pitos/yo tengo que seguir cantando y tu vete a servir txikitos.*

#### ◆ Urte hauetan guztietan beste pasadizorik ere izango duzu.

Urte batean pneumonia harrapatu nuen eta sendagileak ohetik ez altxatzeko esan zidan. Azken orduan Santi Kortabariak Markinatik ekarri zuen mutil gazte bat.

#### ◆ Santa Eskean momentu berezirik izaten duzu?

Idatzitakoari batzutan ihes egiten diot

norbait edo toki bereziren bat ikusiz gero, bat-batean kantatzeko. Dendari edo tabernariak, nire arreba eta iloba ileapaindegian lanean zeudenean, eta Errosario kalean urte batean, apurto edo bota egin zutelako, amabirjina, koplatu izan ditut.

#### ◆ Aurten utziko diozu koplari izateari, baina segidarik izango al duzu?

79 urte ditut bizkarrean. Urteek asko pisatzen dute. Gazteek segida emanaz gero, mantenduko da, baina Etxegiñak garai hartan zuen kezka bera daukat orain nik ere: ea koplatan jarduteko norbait egongo ote den. Hura azken urteetan kostata ibili zen, eta nik ere esaten jardun dut urte batzuetan lagatzeko asmotan nintzela eta azkenean utziko dut aurten.

#### ◆ Modu berezian egingo al duzu agurra?

Agurra, nola ez, kopia kantuan. Batzuk prest dauzkate jadanik eta hona horietako bat:

*Elgoibar eta santa-eskea  
nik maite zaitut bihotzez.  
Azkenerraino iritsi nahi ta,  
heldu da eguna tamalez.  
Orain artean, santa-eskean  
ibili naiz oso errez.  
Itxura ona eduki arren,  
sendo ez nago indarrez.  
Betidanikan maite dudana,  
agur eta gehiago ez.*



## ▶ ASIER SERRANO

IDAZLEA



'Hamaika litera' egitasmoak 'Linbotarren itzalak ate ostean' ikuskizun musiko-literarioa dakar gaur Elgoibarrera (Herriko Antzokian, 20:30ean). Asier Serrano idazlearen 'Ate osteko itzalak' eta 'Linbotarrak poema liburuetan oinarritutako emanaldia da, eta Serrano beraz gain, Antxon Sarasua eta Miren Fernandez musikariak arituko dira oholtzan, hitzei ahotsa jartzen.

- AINARA ARGOITIA -

# "Baneukan berriro nire ahotsarekin eta gitarrarekin adiskidetzeko gogoa"

### ♦ 'Linbotarren itzalak ate ostean' ikuskizunarekin zatoz gaur. Zer izango da?

Bidaia bat da, barne-sentimenduetan arakatzeko gonbidapena. Istorio bat kontatzen dugu guk, baina istorio horretatik berea eraikiko du entzuleak. Nik beti diot, poesian, %30 dela idazleak ulertzea ematen duena eta %70 iradokitako horri irakurleak edo entzuleak erantzuten diona.

### ♦ Lehen ere ez duzu zapaldu gabea oholtza, baina poetaren intimo horretatik berriro zatoz jende aurrera. Nola-koa ari zaizu egiten? Eta erantzuna?

2005ean kaleratu nuen azkeneko diskoa eta orduan ulertu nuen artista izateko ez nuela balio, baina egia esan, baneukan berriro nire ahotsarekin eta gitarrarekin adiskidetzeko gogoa. Beti esan izan dut bi maitale izan ditudala, musika eta literatura, eta beti ibili naizela batetik bestera saltoka. Bada, ikuskizun honek biak batzen ditu. Egin duguna da nire musikagile ibilbideko hamar abesti hartu, birmoldatu, eta abesti horiek erabili aitzakiatzat *Linbotarrak* eta *Ate osteko itzalak* liburuetako poemak sartzeko eta bidaia biribiltzeko. Orain dela urte 1'erdi hasi ginen, eta gustura nabil. Seguru sentitzen naiz, Antxon Sarasua betiko lagunarekin-eta.

Akaso jendea pixkat beldurtuta etortzen da ikuskizunera, poesia ulertuko ez duelakoan-edo, baina esango nieke ez

kezkatzeko. Ez dut uste poesia ulertu ere egin behar denik. Nik adibidez gauero bonboitxo bat jan beharrean poema bat irakurtzen dut, eta bilatzen dudana da poema hori irakurtzen ematen dudana denbora baino tarte luzeagoz iraun dezala poemak utzitako zaporeak. Poesiaren inguruko aurreiritziak baztertu behar ditugu. Hezkuntzan dihardut nik, eta iruditzen zait bekatu handia egin dugula ikasleak testuiruzkinak egitera behartzen. Lorca hor nonbait dago lurperatuta, baina bera topatzeko egin behar dena da justu eskolan bere obrarekin egin behar izan duguna: forentse lana. Haren testuak aletzen jardun gara, zer esan nahi izan ote zuen jakiteko. Ikusiko bagintu lanketa horretan, kolpetik irtengo litzateke lurpetik.

### ♦ Bi maitaleri eustea ez da erraza. Nola egin duzu biekin hain ongi moldatzeko?

Zortea izan dut. Nire ibilbidea prozesu natural bati zor diot. Lorelei garaian ere ez nuen nire burua kantari ikusten, baina aritu nintzen. Kasualitatez edo kasualitatez, zorte handia izan dut. Nik oso erraz izan ditut gauzak, akaso oso-oso

gazte hasi nintzelako idazten eta Lubaki Bandaren garai hartan bagenituelako batzuk begira. Beti diot lehenengo izena izan nintzela eta gero izan naizela izana. Erraz izan dut lanak argitaratzeko, nahiz gero bidea neuk zaildu diodan askotan neure buruari, oso burugogorra izan nintzelako eta sarri ez dudalako bat egin euskal kultura honen sistemarekin.

### ♦ Lubaki Banda aitatu duzu. Zeuk esana da poeta izateko lehenengo asko bizi behar dela. Gaurko begiz nola ikusten duzu hain gazte zinetela eginikoa?

Horretan arrazoi guztiak daukazu. Gaztetan bizinahia izan behar da batez ere, eta uste dut sasoi hartan abenturazale inkontziente batzuk ginela, eta batez ere ni. Baneukan lotsagabekeria hori. Egoa oso puztua neukan eta banitate puztu horrek gidatu ninduen gauzak egitera. Ekin-tzaileagoa ere banintzen eta kolektiboetan ere sinisten nuen. Baina bai, idazleak lehenengo eta behin egin behar duena da ondo dokumentatu, asko bizi eta gero kontsekuente izan bere ametsekin eta kontraesanak onartzen jakin. Urteak

pasatu ditut pentsatzen Lubaki Banda puf bat izan zela. Oso kritikoa izan naiz; *Operación Triunfo* kutre baten antza hartzen nion, baina gero, bizitzak edo ibilbideak erakutsi dit Lubaki Banda ez zela izan gazteen literatur talde bat bakarrik, beste esparru batzuk ere ukitu zituelako. Hitzak edo komunikazio-nahiak lotu gintuen.

♦ **Poetak begiratzen jakin behar du. Gizarte hau, baina, azkarregi doa, eta sarri bizitzari erreparatzeko astirik ere ez dugu hartzen. Norbere minak denon minak direla jabetzeko ere ez.**

Ziurrenik naizen belaunaldikoa izateagatik libratu naiz beste ardurak batzuk hartzetik eta zorteduna izan naiz guzti honi lotutako ogibidea dudalako. Hezkuntza eta hizkuntza izan dira nire munduak, eta batak besterako balio izan dit beti. Esango nuke garai batean euskal kulturaren lekua bilatzen nuela niretzat, Asier Serranorentzat, eta uste dut orain baretu naizela pixkat eta bilatzen dudana gehiago dela euskal kulturarentzat leku bat Euskal Herri honetan, abiada bizian doan gizarte honetan. Zeuk esan duzu: gaur egun bizi gara milaka errainu batera jasotzen ditugun unean eta uste dut jakin egin behar dela aukeratzen eta lehenetsuzkotzat dituzun gauzetan zentratzen.

♦ **Literaturan, poesia da gehien landu duzuna, genero minorizatuena, eta beti euskaraz. Bazterrekoekin enpatizatzen lagungarri izango da ba!**

Hautu pertsonala izan da eta oso eroso sentitu naiz hor. Garai batean, Loreleiren garaian edo gehiengo batek errazago irensten zituen kontuetan aritu nintzenez, ez nintzen batere eroso sentitzen. Ohitu naiz nire mezua letra txikiz idaztera. Ez daukat diskurtso pertsonal handirik jendeari eskaintzeko, baina nire txiki hori konpartituta, ni neu pozik.

♦ **Esan izan duzu poesiak minorizatua eta minoritarioa izan behar duela, eta baita poesia jendearengana gerturatzeko nahi batek eraman zintuela musikara. Ez al da kontraesankorra pixkat?**

Bai. Poesia nire barne-laberintoetatik sortzen den zerbait da, oso kontu intimoak

izaten dira, baina gero topo egiten dute beste Asier kontraesankor horrekin, beste batzuegana gerturatzea bilatzen duen horrekin, gureak ez direnen oihartzuna entzun nahi duen horrekin. Baina oso era naturalean eta haserretu gabe bizi dut.

*“Horrenbeste  
kezkatzen  
bagaitu haurren  
irakurzaletasun ezak  
har dezagun helduok  
liburu bana besapean”*

♦ **Ez zenuen zeuretzat lekurik bilatzen, baina bistan da topatu duzula. Sorkuntza bolada onean egoteaz gain, zure lanek aipamen ugari jaso dituzte azkenaldian. Halakoak beti dira bultzada beste erronka bati heltzeko. Zeri?**

Bizitzari heltzeko. Garbi daukat hor beste hautu bat egin nuela eta nolabaiteko prostituzio intelektualari eskaini dizkiodala nire lanak azken urteetan. Lehiaketetarako aurkeztea 2011n hartutako hautu pertsonala izan zelako. Sariak beti iruditu izan zaizkit literatura munduan beste esfera batean gelditzen ziren kontuak, ziurrenik argitaratzeko arazorik ez dudalako izan, baina 2011n diruz larri nenbilen eta erabaki nuen lantxoren bat epaimahaikide batzuen esku lagatzea. Eta zortea izan nuen. Sariekin konturatu nintzen idazteko denbora erosteko modua ere bazegoela eta lehiaketetarako aurkeztea bazela laborategian probatxoak egitea moduko zerbait. Neu aurkeztu nintzen Irun Saria eta Xabier Lete III. poesia lehiaketetarako. Beste kontu bat izan da Euskadi Literatura saria. Handiegia egin zait, hein batean orain hamar urte, nire burua musikaritzat neukanean, manifestu bat sinatu nuelako Euskadi Sarien kontra egiten, lagun talde batek hala eskatuta. Nik beti esan izan dut nire sinadura egon zela nolabaiteko irregulartasunak egon ziren puntuan. Orain, hamar urte geroago, Bingen Zupi-

riak deitu zidanean esanez neu saritu nindutela eta poesia lan batekin gainera, broma zela ere pentsatu nuen. Ezin nuen sinetsi, ez nekielako ezta finalisten artean nengoenik ere. Baina polita izan da, eta hunkitu nau, iruditu zaidalako kulturegile eta sortzaileen adierazpenak oso benetakoak izan direla. Uste dut zahartzen ari naizela.

♦ **Hasier Rekondok hau zioen zuri buruz BERRIAN: “Surrealismoaren sarrerik gabeko bidezidor epatantea zeharkatu du, poesiak berak jaurti itzulerako kolperik jasotzeko beldurrik gabe, idazle adoretseuek egin ohi duten gisara”. Adoretua, dio. Nola ikusten duzu zuk zure burua?**

Ausarta baino gehiago oso inkontzientea izan naiz, eta lehen, gainera, disfrutatu egiten nuen nire inkontzientziak sortutako albo-ondorioekin. Kakati bat bihurtu naiz, baina. Garai batean, orain bat hogeit urte, Euskadi Irratirako enkarguz egin behar izaten nuen ipuina hamabost minutuan idazten nuen. Gaur egun, egunak edo asteak behar izaten ditut. Saiazen naiz hitz eta esaldi egokienak aukeratzen, eta hor ibiltzen naiz bueltaka.

♦ **Irakasle zara. Irakurzaletasuna apaldu delako kezkatuta daude asko. Nola eman buelta horri?**

Horrenbeste kezkatzen bagaitu gure haurren literaturarako zaletasun ezak har dezagun helduok besapean liburu bana. Geu ikusi behar gaituzte irakurtzen. Dena den, ez da ezer gertatzen umeez ez badute irakurtzen. Irakurtzera behartu baino gehiago ikasleei aukera eman behar diegu idazteko. Irakurtzen badakigu, herri alfabetatua gara; falta zaiguna da erabilerak eta motibazioa lantzea.

♦ **Zer bidali beharko genuke linbora hobeto funtzionatzeko?**

Linboa kontraesanen mundu hori da. Kontraesanak izatea oso gizatiarra da, baina ez dena gizatiarra eta ezta justua ere da kontraesan horiek ez onartzea. Gizabanako ez perfektu hori gizarte perfektu batean ezkutatu nahia da linboa. Horregatik gero eta gutxiago sinisten dut kolektiboetan. Gaur egun askatasun handiagoa behar dugu diskurtso pertsonalak garatzeko.



# “Dirua pertsonen bizi-kalitatea hobetzean inbertitzeko eskatzen dugu”

## ► JOSE JAVIER ARREGI eta MARIAN ESNAOLA

DUINTASUNA ELKARTEKOAK

Joan zen eguenean aurkeztu zuten Elgoibarren Duintasuna elkarte, Gipuzkoako pentsiodunen eta jubilatuen elkarte. Jubilatua eta pentsiodunen beharrei erantzuteko sortu zuten elkarte 2012an, baina azkeneko mobilizazioen ondotik, pentsioen gaian jarri zuten arreta aurkezpen ekitaldian. Pentsioak apaltzen doazela salatu zuten, eta Espainiako Gobernuak onartu duen %0,25eko igoera “miseria bat” dela gehitu. Duintasunak ohar-tarazi du pentsiodunek sei urte daramatzatela erosteko ahalmena galtzen eta etxe askotan gorriak ikusten ari direla. Hala, gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea eta Espainiako Gobernuak Gizarte Segurantzako eskuduntza guztiak Jaurlaritzari transferitzea eskatzen dute. Jose Javier Arregi eta Marian Esnaola elkartekideek eman dizkigute azalpenak.

- AINARA ARGOITIA -

◆ **Espainiako Gobernuak onartu duen pentsioen %0,25eko igoera salatu dute egunotan dozenaka jubilatuk eta pentsiodunek. Duintasuna taldekoek ere bat egin duzue, baina zehaztu duzue zuen eskaerak ez direla horra mugatzen. Zein da zuen egitekoa?**

**Marian:** Hori da. Pentsioak handitzeko eskaera betikoa dugu, baina gure borroka zabalagoa da. Bi arlo lantzen ditugu bereziki: Batetik, pentsioak eta bizi-kalitatea, eta bestetik, menpekotasunaren gaia. Menpekotasunaren gaiaren barruan, zerbitzuak eta prestazioak aztertzen ditugu.

Zerbitzuen barruan, zahar etxeen eta eguneko zentroen funtzionamendua aztertzen dugu, ikusteko zeintzuk diren erabiltzaileen eta langileen beharrak. Prestazioen kontuan zer zuzendu asko dago. Begira, 1.080 eurotik beherako pentsioa duenak jasotzen baldin baditu 800-900 euroko laguntza mendekotasun handiagatik, gutxira, 2.000 euroko diru-sarrera izango du, baina, hala ere, beste mila bat euro faltako ditu nagusien egoitzan sartzeko. Nagusien egoitza publikoetako plazak, gainera, gutxitu egin dituzte aurreko legegintzalditik, plaza batzuk kontzertatu egin

dituztelako. EHBilduren agintaldian 500ekoa zen nagusien egoitzan sartzeko itxaron-zerrenda, eta orain, 800 ingurukoa. Nora doa beraz gure dirua? Plazak kontzertatzeak badu bere zera, ez dugulako ahaztu behar egoitza kontzertatuetan eraikina publikoa dela, Foru Aldundia-rena, baina kudeaketa pribatua dela eta, hala ere, Aldundiaren diru-laguntza jasotzen dutela. Beraz, dirua enpresa pribatuetara doa beste behin, eta joera hori da.

◆ **Bizi-itxaropena luzatzen ari da, eskaeria eskaintza baino handiagoa da na-**

gusien egoitzetan, eta pentsioak apalduz doaz. Jubilatuta eta pentsionistak deitu dituzte mobilizatzerara, baina nago honen eragina gehiagok ere jasango dugula.

**Marian:** Hori garbi. Bizi-itxaropena gero eta luzeagoa da, baina bistan da urteekin laguntasun handiagoa behar izaten dugula denok ere eta duin bizitzeko dirurik ere ez baldin badaukagu, nola ordainduko dugu zaintza zerbitzuagatik? Zeinek egin behar du gure kargu, familiak? Inork ez du karga izan nahi senideentzat. Ez dezagun ahaztu, gainera, familiak ere asko aldatu direla. Gero eta senide gutxiagoko familiak dira gureak, historikoki zaintzaren ardura bere gain hartu behar izan duenak [emakumeak] etxetik kanpora ere egiten du lan orain, lan-baldintzak denontzako okertu dira, soldatak txikiagoak dira... Arazo handi bat daukagu menpekotasunaren gai honetan eta oso kezkatuta gaude, pentsioen gaian bezainbat. Ikusten ari gara jendea nola bizi den. 2013tik 2017ra, erosahalmena %3,5 gutxitu zaigu eta aurreikuspenek diote 2027rako %20 jaitsiko dela. 2013an, 1.500 euro irabazten zuenak 2027an 1.148 euro irabaziko ditu, eta duela lau urte 900 euroko pentsioa zuenak 689 eurokoa jasoko du hamar urte barru. Joan zaitez jubilatuen egoitza batera eta ikusiko duzu zenbat emakume dauden. Zergatik? Han dauden denboran ez dutelako berogailua piztu beharrik etxean. Eta emakumeena apropos diot, zigortuenak direlako.

♦ **Jubilatuen egoitzen inguruan ere gogoeta egitea ezinbesteko ikusten duzue. Zer da zuzendu beharrekoa?**

**Marian:** Nagusien ohituretan aldaketa batzuk izan dira, baina jubilatuen egoitzetako eskaintza betikoa da; gehienetan jarraitzen dute bingoan jokatzeko, eta jubilatuta askok ez dugu gure burua hori ikusten. Horrekin ez dut esan nahi bingoa kendu behar denik, baina bai eskaintza zabaldu.

♦ **Azkeneko egunetan sare sozialen bidez zabaldu diren elkarretaratzeetako deien atzean mezu nagusi bat egon da,**

**pentsioena, eta oso adierazgarria izan da zenbat jendeak bat egin duen deialdi horrekin, deitzailea anonimoa izan arren.**

**Jose Javier:** Bai, pentsioen kontuak suminduta irten da jendea kalera batez ere, %0,25eko igoera horren kontra. Normala da. Poltsikoa ukitzen digutenean, azkarago mugitzen gara.

♦ **Dirutan zenbat da % 0,25eko igoera?**

**Marian:** 2,5 euro dira hilean nik besteko pentsioa dutenentzat, eta nik 1.080 euro baino gehiagoko pentsioa dut. Horrekin zenbat ogi erosten dituzu?

**Jose Javier:** 2.000 euroko pentsioa duen batentzat ere, igoera horrek hilean 5 euro gehiago jasotzea suposatzen du. Miseria bat. Aipatu behar da, gainera, %0,25eko igoera ezarri duten hauek zunda-globoak botatzen dituztela eta zurrumurru bat babilera esaten duena aurten ez bada datorren urtean aparteko bi pagetako bat kenduko digutela. Ez daukagu erraza horiei kontra egiten. Horregatik garrantzi handia dauka jendea ahalduntzeak eta boteretzeak eta azken egunotan sortu den mugimendu honi jarraipena emateak eta indarrak metatzeak.

*"2013tik 2017ra  
%3,5 egin du behera  
jubilatuen eta  
pentsiodunen  
erosahalmenak"*

♦ **1.080 euroko gutxieneko pentsioa eskatzen duzue. Nondik irteten da kopuru hori?**

**Marian:** Hiru kontzeptu daude hemen kontuan hartzekoak eta kalkulu baten emaitza dira hirurak. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 2016ko datu ofizialak hartu ditugu guk, kalkulua egiteko. Horien arabera, batez besteko soldata 28.000 eurokoa da urtean (2.000 euroko hamalau paga). Urteko batez besteko soldata horren %60a hartzen da gero gutxieneko sol-

data kalkulatzeko: 1.200 euro hilean hamalau pagatan. Eta gutxieneko pentsioa kalkulatzeko gutxieneko soldataren %90a kalkulatzeko da: 1.080 euroko pentsioa. Beste zifra batzuk ere entzungo dituzue beharbada han-hemen, batez besteko soldata aldatu ahala besteak ere aldatzen direlako, baina gu 1.080 euroko zifra hori ari gara erabiltzen jendea ez marea-tzeko. Hori bai, Jaurlaritzarekin negoziatzen hasten garen egunean, kalkulu horren momentuko emaitza hori izango da gutxieneko pentsiotzat eskatuko duguna. Europako Mahai Sozialak dioena betetzea besterik ez dugu eskatzen. Gaur, pentsiodunen asko eta askok diru sarrera bermatzeko errentari esker lortzen dute gutxieneko duintasuna, eta 1.080 euroko pentsioa jasoko balute egoera ezberdina izango zen.

1.080 euroan legoke beraz hemen Europak pobrezia-eremu mugatu deitzen duena. Estatuan kopuru hori txikiagoa da, 800 bat eurokoa, batez besteko soldata ere txikiagoa dutelako. Horregatik eskatzen dugu guk Hego Euskal Herriko pentsio sistema kudeatuko lukeen gizarte segurantzaren propioa eratzea.

♦ **Guztiantzat diozu. Zeintzuk dira guztiak?**

**Marian:** Gizarte Segurantzatik pentsioa jasotzen duten guztientzako eskatzen dugu kopuru hori, bai ordaindutakoaren arabera pentsioak dituztenentzat eta baita kotizazio gabeko pentsioa dutenentzat ere. Bakarren batzuk galdetu izan dигute nolatan ari garen kotizatu ez dutenentzat eskatzen, baina guk beharrezko ikusten dugu, besteak beste asko emakumeak direlako. Dena den, pentsioa jasotzen dutenen talde horretatik kanpo jende talde handia gelditzen da, eta uste dugu horientzat guztientzat oinarriko errenta bat egon beharko litzatekeela. Ez dugu zehaztuta zenbatekoa izan beharko lukeen, baina guk egiten dugun guztia pobrezia-eremu kontrako kanpainaren barruan egiten dugu, eta hori garbi daukagu zer den bermatu behar dena: soldata duin bat langileentzat (1.200 euroan dago egun), gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izan

dadila pentsiodun guztientzat eta gutxieneko diru-sarrera bat gainerako guztientzat. Gizartea era horretan antolatu behar da, dirua, egon, badagoelako. Begira, Eusko Jaurlaritzak 2018rako egin dituen aurrekontuak aurreko urteetakoak baino askoz hobek izan dira, eta gainera, esan berri dute 300.000 euro dituztela itxuraz non gastatu ez dakitenak. Eta guk esaten dieguna da pertsonen bizi-kalitatean inbertitu behar dutela diru hori.

#### ◆ Zein da Gipuzkoako argazkia?

**Marian:** Gipuzkoan 184.000 pentsiodun bizi gara eta hortik 100.000 bat lagunek 1.080 euro baino gutxiago jasotzen dituzte, eta horietatik hamarretik zazpi emakumeak dira.

#### ◆ Pobreziak emakume aurpegia du.

**Marian:** Bai, eta larria da, baina ez da harriztekoa. Beti izan da hala. Ondo bizi den bikote batean ere emakumea pobregoa izaten da. Emakume adineko asko oso pentsio baxuarekin bizi dira, edo gabe, 500 euro arteko laguntzarekin. Beste asko senarraren pentsioari esker bizi dira, menpekotasun egoera betean.

#### ◆ Haiei galdetu beharko genieke, baina nola bizi daiteke gaur eta hemen pentsio apal horiekin?

**Marian:** Bizi? Galdera ona, estatu espainolak 786 euroan dauka gutxieneko pentsioa, gu 1.080 eurokoa eskatzen ari bagara ere. Bizi daitekeen? Bada bai, bizi dira, baina miseria gorrian.

#### ◆ Esan duzue ez zaudetela amore emateko, baina era berean aitortu duzue zuen aldarrikapenek hutsaren hurrengoko erantzuna izan dutela. Haserrearen haserrez, abstentziorako deia egiten ere entzun izan ditugu batzuk, alargunak kasu. Eskubide horri uko egitea al da benetan aukera bakarra?

**Marian:** Ez. Kontrakoa. Botoa emateko eskatuko genuke guk, baina kapitala lehenesten dutenei eman beharrean botoa eman diezaiotela pertsonak lehenesten dituztenei. Begira, duela bi urte 72.000 sinadura aurkeztu genituen Eusko Legebiltzarrean, besteak beste, gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izan zedila eskatzeko eta Hego Euskal Herriko pen-

tsio sistema kudeatuko lukeen gizarte segurantzaren propioa eratzea eskatzeko, baina EAJk, PPK eta PSE-EEk ez zuten babestu legegai hura. Baina ez gaude etsitzeko. Indarra egin behar dugu gauzak lortzeko. Botik ordainketa partekatua gaian lortu genuen, esaterako. Anbulategi atarrietan sinadurak batzen hasi ginen, eta egun gutxira, Jaurlaritzak atzera egin zuen eta esan zuen urtean 18.000 euro edo gutxiago kobratzen zutenei ez ziela aplikatuko (Ordainketa partekatuko sistemak zenbait errenta-tramu ezartzen ditu eta norberak bere errentaren arabera ordaindu behar du botika, gehiago edo gutxiago).

*“Gipuzkoan 184.000 pentsiodun bizi gara eta 100.000 batek jasotzen dute 1.080 euro baino gutxiago”*

#### ◆ Nola mobilizatu etsita dauden horiek?

**Jose Javier:** Adin handiko jendea mugitzea zaila da, baina jubilatuek asko gara eta mobilizazioetan parte hartu dugunok asko izan bagara ere, etxean gelditu direnak gehiago izan dira. Lan handia dugu egiteko. Baina, bai, zuk esaten duzuna ere bada. Hau denon arazoa da. Gaur gai honek kezkatzen ez bazaituzte ere, kontuan izan behar duzue zuen nagusiak bizitzeko gorriak ikusten ari badira zuek ere sentituko duzuela karga hori. Eta gehiago ere bada: gure adinekoen egoera hau bada, gaur egungo errealitatea beltza bada, atera kontuak nolako etorkizuna dagokizuen. Begira: pentsioak gehienez 2.500 euro inguruak dira. Diru hori ez da urteetan mugitu. Gaur, 50 urte dauzkan batek eta kotizatzen segitzen duenak garbi izan dezala ez duela 2.000 euro baino gehiagoko pentsioa izango. Ni duela bi urte jubilatuta nintzen, baina 2013an jubilatuta zirenek nik baino

gehiago irabazten zuten. Pobretze etengabea da hau. Ezin dut ulertu nola 40-50 urteko batek ez duen hau ikusten.

**Marian:** Agintzen daudenek badute euren plana: pentsio pribatuak eta EPSVak sustatzen ari dira. Eta kontuz, pentsio pribatuak ez dute dirurik ematen. Zuk aurkeztu duzun diru kopuru bera jasoko duzu, ez gehiago, eta bitartean, finantza-erakundeak ari dira euren poltsa gizentzen. Lagun batek esaten zidan bezala, hori baino hobea da etxebizitza bat erostea eta zahartzaroan saltzea edo hipoteka alderantzizkoa eskatzea. Menpekotasunaren gaian horixe da gure agintariek duten irtenbidea: hipoteka alderantzizkoa.

#### ◆ Zer da hori?

**Marian:** Norbere etxea ematea. Jo dezagun pentsioarekin eta diru-laguntzarekin ez naizela gai bizitzeko eta neu zaintzeko norbait hartzeko eta gainera nagusien egoitzan ez daukadala lekurik. Bada, banketxeari edo Udalari ematen diot nire etxea -badaudelako Hego Euskal Herrian hori egiten duten Udalak-, eta hark hilero diru bat ematen dit gastuei aurre egiteko. Baina, jakina, denborarekin, etxea galtzen dut, eta luze bizi banaiz, zer egingo dut gero?.

#### ◆ Zuen bilkuretan zeintzuk izaten dira nagusien kezka nagusiak?

**Jose Javier:** Diruari lotutakoak bereziki, baina, kezkatzen ditu herriaren arkitekturek edo antolamenduak ere. Kaleak labanak dira, aldapa handiak ditugu, irisgarritasuna ez da beti ona... Guzti horiek kontuan hartu behar dira, ez dugulako ahaztu behar Elgoibarren herritarren %22 garela 65 urtez gorakoak, 2016ko datuen arabera, eta horri ezintasunen bat dutenen kopurua gehituz gero, zifra hori pare bat puntu igotzen dela. Kopuruz, Oitik 17 urte bitartekoak baino gehiago gara 65 urtez gorakoak. Eguraldi oneko egun batean joaten bazara plazara, ez duzu eserlekurik topatuko. Terrazaren batean topatu beharko duzu lekua trago baten truke, eta hori ahal ere ezin dute adineko askok. Pentsatu behar dugu horren inguruan ere.

## Barixakutik domekara bitartean egingo dituzte Santa Ageda eskeak Elgoibarren eta Mendaron

Santa Ageda Eguna otsailaren 5ean izanik, eskerako egunak dira gurean. Hala, bai Elgoibarren eta baita Mendaron ere, koplak kantuan ibiliko dira hainbat talde gaur, bihar eta etzi. Lerro hauek idazteko unerako hainbat deialdi genituen jasoak, baina deitzaile gehienak eguraldi-iragarpenak zer esango zain zeuden, batez ere ikastetxe-etakoak. Berez Mendaro ikastolako umeak dira gaur kantura irteteko lehenergoak. Eguraldiak lagunduz gero, 10:00etan hastekoa dute ibilbidea ospitaleko atarian LH5 eta 6 mailetako neska-mutilek. Herri osoan barrena ibiltzekoak dira kantuan. Hainbat geldialdi egingo dituzte kanturako herrian eta geldialdi horietan gaztetxoagoak batuko zaizkie. Bukieran, 12:00ak aldera, denak batera ariko dira kantuan, Mendarozabalen.

Elgoibarren, Ikastolako 15:15etik 16:30era ibiliko dira Elgoibar Ikastolako umeak kantuan, kalez kale.

### Baserrietan eta kalean

Zapatuan, otsailaren 3an, 8:30ean ir-



tengo dira koplak kantari Mendaroko taldeak eta Etxegiñakoak Elgoibarren. Etxegiña taldekoak San Bartolome eliza aurrean elkartuko dira eta kalez kale ibiliko dira, 14:30ak aldera Errosario kalean Salbea abestu bitartean. Aurten, urte luzetan koplari aritu den Kepa Urainek agur esango dio jardunari eta berarekin batera arituko dira Inazio Mugerza eta Iñigo Legorburu koplari.

Mendaron, baserri auzoak eta kalea

koplatuko dituzte eskekoek, hiru taldetan banatuta. Sahatsu mendin Mañukorta eta Aitor Salegik abestuko dituzte koplak; Mendarozabalen, Beñat Lizasok eta Asier Lazarobaster *Agarrek*, eta Aran Errekan, Aitzol Urain *Bidaburuk* eta Beñat Ugarte-txeak.

Elgoibarko Izarrakoak egunean bertan irtengo dira kantura, 10:00etan, eta baserri-z baserri ibiliko dira, bi taldetan banatuta.

## Uxue Alberdik ikus-entzunezkoen Argia Saria jaso du Euskal Herriko Bertsolari Txapelketari telebistarako egindako jarraipenagatik

lazio komunikazio proiektu onenei Argia Sariak eman zizkieten joan zen astean. Ikus-entzunezkoen saria Uxue Alberdi elgoibartarrak jaso zuen, Aitzol Barandiaranekin batera, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiarri ETBn egindako jarraipenagatik. Sari emaileek azpimarratu zuten erretransmisio hutsa egitekin harago, iruzkin aberatsak egin zituztela, "artista errespetatuz, baina gakoak emanez ikusten eta entzuten ari ginena baloratzeke. Busti egin dira iruzkinetan. Ados egon ala ez, eskertzen du hori ikusleak".

Uxuek, saria jaso zuenean, Aitzol Barandiarani eskertu zizkion "emandako zaintza, lanarekiko ardura eta umore ona". "Uste dut saiatu garela bertsoaren ezaugarri formal edo gako batzuk identifikatzen ikus-entzuleek gehiago gozatuko eta preziatuko zutelakoan, baina jakinik bertso onaren zirrara ezin dela esplikatzen. Paradoja horretatik aritu gara horixe egiten,



saiatuz transmititzen maite dugun honekiko entusiasmo handia, ezagutza gutxi batzuk eta maitasuna", gaineratu zuen.

## ▶ ALEX RUIZ HAUNDIKO KAPITAINA

Sorbaldan min hartuta badago ere, Haundiko kapitain Alex Ruizek (Elgoibar, 1991) ez dauka zapatuan Mintxetan jokatu duten partida galtzeko inongo asmorik, Eibar Urko taldearen aurkako derbia delako eta auzokoak sailkapeneko bigarren postuan daudelako. Bolada onean dago Haundi. Lau partida jarraian irabazita, sailkapeneko laugarren postuan dago.

- ASIER ORBEA -

“Igoeragatik lehiatzeko gosez dagoen taldea gara”

♦ **Ligako lehen itzulia laugarren postuan amaitu duzue, 31 punturekin (9 partida irabazi, 4 berdindu eta 5 galdu). Aloña Mendi liderrak 37 puntu ditu eta Eibar Urkok 36. Egiguzu orain artekoaren balorazioa.**

Ez ginen espero genuen bezain ondo hasi, bi berdinketa eta porrot batekin hasi genuelako liga. Egoerari buelta eman eta lau partida jarraian irabazi bagenituen ere, txakalaldia izan genuen eta bi partida galdu genituen. Bolada onean gaude orain, azken lau partidak errenkadan irabazita, azkena Azkoitian Lagun Onaken aurka. Orain artean bolada on eta txarrak tartekatuta baditugu ere, espero dut aurrerantzean garaipenak bakarrik pilatzea.

♦ **Denboraldi hasieran maila igoera lortzeko faboritoak izatearen presioa nabaritu zenuten?**

Hori baino gehiago, iazko denboraldiko dinamikari buelta ematea izan zen zailena. Partida gutxi irabazi genituen maila galdu genuen urtean eta zaila da joera hori iraultzea. Gainera, entrenatzaile eta jokalar berriak etorri ziren taldera, eta denbora behar genuen denok elkar ezagutzeko. Faborito izatearena gehiago da kanpotik jendeak uste duena talde barruan sentitzen duguna baino. Maila galdu duen taldeak ez dauka zertan igoera berehala lortu, zuhurrak izatea komeni da. Gure buruari presioa jartzeak ez du ezertan laguntzen.

♦ **Lehen sailkatuekiko aldea murrizteko partida garrantzitsua jokatu duzue zapatuan Mintxetan, Eibar Urkoren aurka.**

Demaseko gogoia daukagu partida hori jokatzeko, arrazoi askoengatik: Eibarren jokatu genuen Ligako lehen partidatan 2 eta 0 irabazi zigutelako, bost puntuko aldea ateratzen digun aurkari zuzen bati abantaila murrizteko aukera ematen digulako... Benezako derbia izango da.



♦ **Hortaz, Elgoibar eta Eibarren arteko norgehiagoka nabari da oraindik ere?**

Bai, badago pike sano hori. Debabarreneko taldeen aurkako partidetan igartzen da lehia. Harmailetan ere ohi baino jende gehiago batzen da. Ziur zapatuan ere jendea etorriko dela Eibartik.

♦ **Nolakoa da Haundik egiten duen futbola?**

Fisikoa oinarritutako futbola egiten dugu. Korrika asko egiten dugu, gazteak garelako eta anbizio handia dugulako. Igoeragatik lehiatzeko gosez dagoen taldea gara. Nik 26 urte ditut, eta beteranoetarikoa naiz. Batez beste 23 bat urteko taldea gara.

♦ **Jokalari elgoibartarren aldeko apostua egin du zuzendari-tzak.**

Erabat ados nago filosofia horrekin. Une honetan 13 edo 14 jokalar elgoibartar gaude taldean. Beti kritikatu izan dugu Haundin ez zegoela Elgoibarko jenderik eta horregatik ez zela ikuslerik joaten. Urteetan errepikatu den leloa izan da hori. Beste talde batzuk, Mutrikuk, Lagun Onakek, Anaitasunak edo Eibarrek egin duten moduan, herriko jokalarien aldeko apostua egin da eta pazientzia pixka batekin funtzionatuko du. Gainera, harrobiko jokalarientzat pizgarria da lehen taldera ailegatu daitezkeela ikustea. Zaleekin ere beste lotura bat sortzen da, eta jokalarien lagunekin bakarrik bete egiten dira harmailak. Aurten, denboraldi hasieratik izan dugu zaleen babes. Guk gurea egiten badugu, lan egin eta gogoia jarri, zaleak hor izango ditugu.

♦ **Zer eman dizue entrenatzaile berriak, Omar Aizpuruk?**

Jokalariekin daukan tratua nabarmenduko nuke. Oso da gutukoa eta taldea bat eginda egoten laguntzen du bere izaerak. Gogo eta konpromiso handia nabari zaizkio.



## Euskal Herriko arku tiratzaile onenak batuko dira domekan Elgoibarren



**E**uskadiko Aretoko Arku Tradizionaleko eta Arku Biluziko VIII. Txapelketa jokatuko da domeka honetan, otsailaren 4an, Olaizaga kiroldegian. Elgoibarko Zarta arkulari taldeak eta Gipuzkoako arku tiraketa federazioak antolatutako txapelketan 50 arkularirik gora arituko dira lehian. Donostiako Diarco taldeak izango ditu ordezkari gehien, hamar guztira. Bizkaiko bi taldek, Abanto Gexaleriak eta Arco Santurtzik, zazpina ordezkari aurkeztuko dituzte. Etxeko taldeak, Zartak, lau ordezkari izango ditu: Andoni Campo, Rafael Segui, Hugo Sierra eta Javier Varona. 9:00etan hasiko da txapelketa Olaizaga kiroldegiko kantuan eta 14:30ak ingururako amaiteza aurreikusten dute antolatzaileek.

### Idien arteko dema apustua, gaur gauetan

Ainhoa Gabirondo eta Berriatuako Karmelo Bikandiren idi pareen arteko desafioa jokatuko da gaur (otsailak 2) Elgoibarko Sigma probalekuan, 22:00etatik aurrera. 1.775 kiloko harria mugitu beharko dute idiek orduerdiko lanean. Sigmako Probaleku Elkarteak antolatu du dema.



## Emaitzak

### FUTBOLA

Lagun Onak 0 – Haundi 1  
 Elgoibar 6 – Ikasberri 0 (1. erreg.)  
 Elgoibar 1 – Ostadar 1 (Oho. jub.)  
 Urki 1 – Elgoibar 3 (Jub. 1. maila)  
 Urki 1 – Elgoibar 3 (Oho. kad.)  
 Elgoibar 1 – Aretxabaleta A 1 (Kad 1. maila)  
 Elgoibar 4 – Ilintxa 1 (Oho. inf.)  
 Kostikas 8 – Elgoibar 0 (Inf. Txiki)

### SASKIBALLOIA

Viento Sur Elgoibar 72 – Alkideba Ointxe 77

### ESKUBALLOIA

Bera Bera 27 – Lauko Elgoibar 21 (Senior emak.)  
 Maristas Zaragoza 26 – Alcorta F.G. 21 (Senior giz.)  
 Arrasate 22 – Salento Elg. 31 (Sen. giz.)  
 Arilan Elg. 27 – Zarautz 16 (Kad. neska.)  
 Barakaldo 19 – Urkunde Elg. 35 (Kad. mut.)  
 Hondarribia 30 – Bankoa Elg. 29 (Kad. mut.)  
 Bidasoa Irun 33 – Bacalaos Alkorta 19 (Inf. neska.)  
 Modeltek Elg. 19 – Bera Bera 17 (Inf. neska.)  
 Hotel Txarriduna 17 – Zarautz 23 (Inf. mut.)  
 Zubacor Elg. 19 – Leizaran 17 (Inf. mut.)

## Agenda

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 3  
 12:00 Elgoibar – Amaikak Bat (Oho. kad.)  
 16:30 Haundi – Eibar Urki

### Domeka, 4

09:15 Elgoibar – Lagun Onak (Benj.)  
 11:30 Elgoibar – Lagun Onak (Benj.)  
 13:30 Elgoibar – Urki (Inf. Txiki)  
 16:30 Elgoibar – Ikasberri A (Jub. 1. maila)

### ESKUBALLOIA (Olaizaga Kiroldegian)

#### Zapatua, 3

10:00 Pneumax Elg. – Ereintza (Inf. neska.)  
 11:15 Bacalaos Alkorta – Zarautz (Inf. neska.)  
 12:45 Cometel Elg. – Tolosa (Kad. neska.)  
 16:00 Tecnifuelle – Kukullaga (Jub. neska.)  
 17:45 Lauko – Berango (Senior emak.)  
 19:30 Alcorta F.G. – Trapaga (Senior giz.)

#### Domeka, 4 (IMHn)

10:00 Urkunde – Zarautz (Kad. mut.)  
 11:30 Salento – Saieko (Senior giz.)  
 13:00 Astigarraga G.Y.S. – Egia (Jub. neska.)

## Mugertza krosaren historia jasotzen duen liburua eta erakusketa aurkeztuko dituzte

Juan Muguerza Nazioarteko Krosaren historia jasotzen duen *Gazelen Hatsa* liburua aurkeztuko dute gaur, otsailak 2, Elgoibarko Kultur Etxean, 19:00etan. Mintxeta Atletismo Taldeak eta 75. Urteurreneko Batzordeak aurkeztuko dute liburua. Era berean, libururako erabili dituzten hainbat argazkirekin eta dokumenturekin erakusketa bat osatu dute. Otsailaren 2tik 25era bitartean egongo da ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan.



**LANA.....**

**Eskaerak**

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka. Gavez eta ospitalean ere bai.  
☎ 602 490 595

Adinekoak zaintzeko prest nago. Ordu-tegi malgua.  
☎ 632 729 261

Emakume euskalduna etxeko lanak egiteko prest. Goizez.  
☎ 687 114 707

Umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko prest nago. Goizez, arratsalde zain orduka.  
☎ 675 965 130

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest, egunez edo gavez. Ikasketak eta esperientzia.  
☎ 671 989 434

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Interna moduan ere. Esperientziarekin.  
☎ 689 571 882

Dendetako saltzaile, bulego edo etxe garbitzaile zein ume edo adinekoen zaintzaile lanetan aritzeko prest nago.  
☎ 629 903 512

Emakumea adinekoak zaintzeko prest.  
☎ 685 263 228

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Orduka.  
☎ 638 338 816

Esperientzia eta erreferentziadun neska lanerako prest. Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest.  
☎ 688 712 075

Adinekoak zaintzeko edota kalera atera eta paseatzen laguntzeko prest. ☎ 699 535 728

Adinekoak edo umeak zaintzaile, sukalde laguntzaile edota garbitzaile aritzeko prest.  
☎ 602 047 812

Nagusiak zaintzen, eta garbitzaile edo ile-apaintzaile lanetan aritzeko prest. Orduka edo interna. ☎ 632 839 617

Garbiketa lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko prest.  
☎ 651 479 142

Edozein motako lanetan hasteko prest.  
☎ 632 918 379

Edozein motako lanetan hasteko prest.  
☎ 631 381 772

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta portalak, tabernak... garbitzeko eta sukaldari laguntzaile moduan aritzeko prest. ☎ 642 249 818

Neska gaztea lanerako prest. Adinekoak zaintzen edo garbiketan. Erreferentzia asko.  
☎ 688 712 075

Neska lanerako prest. Adinekoak edo umeak zaintzeko zein etxebizitza eta portalak garbitzeko prest. Ordu-tegi malgua.  
☎ 658 273 486

Adinekoak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest, orduka eta interna moduan.  
☎ 617 810 065

Adinekoak zaintzeko prest nago. Interna moduan ere bai.  
☎ 662 201 935

Adinekoak zaintzeko prest nago. Interna moduan ere bai.  
☎ 612 265 747

Etxeko lanak egiteko, pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Erreferentziak ditut. Interna aritzeko prestutasuna.  
☎ 664 182 488

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest. Interna edo orduka aritzeko gertu.  
☎ 602 123 942

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest. Interna edo orduka aritzeko gertu.  
☎ 634 709 366

**ETXEBIZITZAK.....**

Trasteleku duen etxebizitza alokairuan hartuko nuke Elgoibarren.  
☎ 602 490 595

Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dut alokagai Elgoibarren urgente.  
☎ 638 338 816

Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 677 259 560

**GARAJEAK.....**

Garaje itxia alokagai Ikastola ondoan.  
☎ 943 531 648

**BESTELAKOAK.....**

Orain dela pare bat hilabete, familia ar-gazki zahar bat topatu nuen Maala tabernan. Galdu duenak estimu handian izango duela pentsatzen dut eta gordeta daukat etxean. Berreskuratu nahi duenak deitu. ☎ 647 134 925

1988an jaiotako kinto bazkaria. Aurten 30 urte betetzen ditugun elgoibartarrok kinto-bazkaria egingo dugu maiatzaren 19an. E-mail bat bidali dugu azken egunetan informazio gehiagorekin. Mezu horren berri izan ez baduzu, jarri gurekin harremanetan [elgoibar1988@gmail.com](mailto:elgoibar1988@gmail.com) helbidera idatzita. Anima zaitetz!



**administradores**  
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Idiomas  
Instituto Vasco de Administradores de Idiomas

**ROSA Mª PINTADO**

*Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
**[rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)**

**Estatutuek debekatu dezakete animaliak edukitzea?**

Jabe orok ditu bakoitzaren etxeari dagozkion eskubide berezi eta esklusiboak. Beraz, norbere etxeko mugen baitan nahi dituen ekintzak egin ditzake, baldin eta gainontzeko bizilagunen interes komunekoa eskubideak urratzen ez baditu.

Etxeko animalia baten jabeak bere animaliaz gozatzeko eskubidea du eta legeak ezarritako mugak baino ez ditu bete behar. Beti ere lege-dia zentzuz bete eta etxeko bizigarritasunean zein elkarbizitza bake-tsuaren eragiten ez badu.

Irizpide hauen harira eztabaidagarria da eraikineko elementu pribatuetan etxeko animaliak edukitzeari buruz estatutuetan debekuak egotea. Izan ere, horrelako debekuak jabetza pribatuetan muturra sartzea lirateke. Bestalde, eraikinaren elementu edo instalazio komunen zein bizilagunen komunitatearen adostasun edo erabakien bidez ezarritako barne araudi batek ezingo luke oztopatu animaliak edukitzea.

**Ondorioak: kasu zehatz bakoitza aztertuz gero, etxebizitza zein animalia-aren gozamenak izan ditzake mugak. Horietako batzuk honakoak dira: etengabe edo orokorrean trabak sortzea, animalien jabetzak araudiak ezarritako arriskuak eragitea edo bizilagunei kalte egitea utzikeriak zein osasunaren kalterako baldintzek.**

Enpresa kolaboratzailea: **NORFO** P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Bittor**, atzo 5 urte bete zenuela. Etxeko guztien partez muxu handi bat.



Zorionak, gure printzesa! 6 urte handi bete dituzulako, osaba-izeba, aitaitxo, Ander eta familiako gainerakoen partez.



Zorionak, **June**, neska handi! Esku-bete urte! Muxu handi bat, gurasoen, neba Enaitzen eta lagunien partez.



Bihar lau kandela jarriko ditugu San Blas gainean. Zu bai neska handia! Zorionak eta marribizko patxo bat, **Lur**.



Zorionak, **Danel**. Gaur, ostirala, 4 urte. Patxo handi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **Ane** eta **Eneko**. Gaur 7 urte! Ondo pasa zuen urtebetetze egunean. Muxu potoloak etxeko guztien partez!

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€.  
Argazki bikoitza: 7€.  
Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

**ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK**

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€.  
Argazki bikoitza: 6€.  
Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.

**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA  
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359 [www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)







**19€**

(bi profilu probak barne)





**Inauterietarako fantasiako eta koloretako lentillak**



**GREMIOEN GIDA**

Gidan agertzearen onurak!

**21**  
hilan

**21 Eren truke, hilero,** zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarlan!

**12**  
aldiz urtean

**BARREN** astekarlan da Elgoibar eta Mendaran erakutsieho ikusiena.

**4.885**  
ale astero

**4.860**ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaran **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

## 2 BARIXAKUA

**10:00** Eguraldia lagun bada, Mendaro Ikastolako umeak santa eskean irtingo dira: 12:00ak aldera Mendarozabalen kantatuko dute denek elkarrekin.

**15:15** Santa Agedako kalejira. Ikastolako haurrak kantari kalez kale (euria eginez gero, Ikastolan).

**19:00** Liburu aurkezpena. *Gazelen hatsa* (Eduardo Arrillaga). Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Otsailaren 2tik 24ra argazki erakusketa. Asteleheneetik zapatara 18:30etik 20:30era. Kultur Etxeko erakusketa aretoan. Antolatzailea: Juan Murgertza 75. urteurreneko batzordea.

**20:30** Kontzertua: *Linbotarren itzalak ate ostean* ikuskizun musiko-literarioa: Asier Serrano, Antxon Sarasua eta Miren Fernandez. Antolatzailea: Hamaika litera. Doan. Herriko Antzokian.

**22:00** Idi-dema. Ainhoa Gabirondo-Bikandi (Berriatua). Sigmako probalekuan.

## 3 ZAPATUA

**8:30** Santa Ageda eskea Mendaron. Hiru taldetan banatuta herri eta baserri-auzoak koplaturatu dituzte. Udaletxe atarian elkartuko dira goizean. Sahatsu mendi (Mañukorta eta Aitor Salegi), Mendarozabal (Beñat Lizaso eta Asier Lazarobaster *Agarre*) eta Aran Erreka (Aitzol Urain *Bidaburu* eta Beñat Ugarte-txea).

**9:00** Santa Ageda eskea Elgoibarko kale eta auzoetan. Hitzordua: Bolatikoko parkean. Koplariak: Kepa Urain, Inazio Mugerza eta Iñigo Legorburu. Antolatzailea: Etxegina taldea.

**11:00** Ateak irekitzeko eguna: Herri Eskola. Tailerrak, dantzak, bazkaria, perkusio-festa eta txokolatea.

## 4 DOMEKA

**10:00** Santa Ageda eskea Elgoibarren baserri-zabaleran. Hitzordua: Kalegoen plazan.

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

**9:00-14:30** Euskadiko arku tradizional eta biluzi txapelketa. Olaizaga Kiroldegian. Antolatzailea: Zarta.

## 5 ASTELEHENA

**18:30** Minbiziaren aurkako eguneko pertsonen osatutako mosaikoa. Kalegoen plazan. Izena ematea: 943 202 494 / [bajodeba@aecc.es](mailto:bajodeba@aecc.es)

## 6 MARTITZENA

**17:00-19:00** Mozorro hezkidetzaille tailerra, Elgoibarko Ludotekan.

## 7 EGUAZTENA

**17:00-19:00** Mozorro hezkidetzaille tailerra, Elgoibarko Ludotekan.

## 8 EGUENA

**17:00-19:00** Mozorro hezkidetzaille tailerra, Elgoibarko Ludotekan.

**22:00** Hitzaldia: *Elkar entzuteko gunea sortzen etxean: liburuak eta kontutxoak lagun*. Hizlaria: Pello Añorga. 0 eta 4 urteko haurren gurasoentzat. Udal liburutegian.

## 9 BARIXAKUA

**15:15-16:30** Ikastolako Euskal Inauteriak. Kalejira ikastolatik eta dantza saioa Kalegoen plazan (eguraldi txarra bada, Ikastolan izango da).

**17:00-19:30** Ludotekako X. mozorro festa. Merienda, mozorro lehiaketa eta dantzaldia. Ludotekan.

**18:30-20:30** Odol-ematea. Elgoibarko Odol Emaileen Elkartearen (Osasun Zentro ondoan).

**20:30** Opera (aurrez grabatuta): *Rigoletto*. Herriko Antzokian. Sarreren salmenta: Kutxabanken, edo larunbatero, 19:15etik 21:45era, eta egunean bertan, leihatilan.

**20:30** Kontzertua: Sinüoserren inauterietako kontzertua. Kultur Etxeko sotoan.



I. URTEURRENA

## Manuela Larrañaga Loyola

2017ko otsailaren 2an hil zen, 90 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 3, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.



## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
2 BARIXAKUA	3 ZAPATUA	4 DOMEKA	5 ASTELEHENA	6 MARTITZENA	7 EGUAZTENA	8 EGUENA	9 BARIXAKUA
Egunez * <b>Fernandez</b>	Egunez <b>Yudego</b>	Egunez <b>Yudego</b>	Egunez * <b>Oruesagasti</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>	Egunez * <b>Ibañez</b>	Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Etxeberria</b>
Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Etxeberria</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Etxeberria</b>

\* **Fernandez:**  
Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* **Ibañez:**  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* **Oruesagasti:**  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**  
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)  
943 254 410

## Zinea (Herriko antzokian)

### 'Que baje dios y lo vea'

3 zapatua, 19:00/22:15

4 domeka, 19:00/22:15

5 astelehena, 21:30



**Zuz.: Curro Velazquez. Espainia, 2017. 95 min. Komedia. Aktoreak: Karra Elejalde, Alain Hernandez, Macarena Garcia, Tito Valverde eta Joel Bosqued.** Behea jo du monasterioak eta zulutik ateratzeko modu bakarra *Champions Clerum*, erlijiosoen Europako futbol txapelketa, irabaztea da. Kongregazioan ez du inork futbolearen jokatzeko eta taldeak artzapezpikuaren bedeinkazioa baino gehiago behar du.

### 'Oihaneko kuadrilla'

4 domeka, 16:30




**Zuz.: David Alaux. Frantzia, 2017. 97 min. Animazioa, komedia eta abentura.** Maurice pingüinoak tigre bat du barruan! Tigre batek hezita, pingüinoak, itsas hegazti izatetik kung-fu maisu izatera pasatu da. Aurrerantzean, bere lagunekin, oihanean bakea eta justizia nagusitu daitezela saiatuko da. Baina Igorrek, koala gaiztoak, bere jarraitzaileekin, oihana suntsitzeko asmoa du.



## IV. URTEURRENA Luis Izagirre Arrizabalaga

"Lizundia"

2014ko urtarrilaren 29an hil zen, 69 urte zituela. Haren oroimenez IV. urteurrenako meza izango da, zapatuan, otsailaren 3an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren Eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldeztetik eskerrak.



Etxekoak



Manu Sanchez



## Unai Villena



Chavela Vargas, Nick Cave, Nacho Vegas edota Anariren ahotsetan poesia ezteki mingarri ederrenak gorpuztu zitzaketen drama biluzi haiek, zure ahotsetik entzunda, gitarra zahar haren sokak hatz-kolpe bortitz eta harramazka traketsekin zigortzen zenituela, txarki kantatutako pena-kontatze patetiko hutsak ziren, besterik ez. Ez, ez, ez, eman zenituen zorigaiztoko kontzertu bi haietako publikoko pertsonak ez ginen hotzak: zuk antzeztutako ikuskizun penagarriak utzi gintuen izoztuta.

P.D: Hitzok otsailaren 2an irakurtzen badituzu arratsaldeko zortzi eta erdiak baino lehen, oraindik garaiz zabilta Herriko Antzokira hurbildu eta aulki huts bat betetzeko. Han ez da hotzik ez izotzik izango: giro goxo eta epelean bilduko gara lagun gutxi batzuk ostiraleroko errutinari ordubeteko parentesia egitera. Kanpoan poteo zaratatsuk aurrera egin bitartean, barruan musikaz eta poesiaz hordituko gara. Ezin kexatu, bada: aisialdirako eta mozkortzeko aukerak, gurean, esku-eskura eta nahierara!

*“Oraindik garaiz zabilta gaur Herriko Antzokira hurbildu eta aulki huts bat betetzeko”*



## *Mari Tere Unzueta Etxaniz*

2018ko urtarrilaren 29an hil zen, 91 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zure irribarre goxoa eta maitasuna  
betirako izango dira gure artean.***



IV. URTEURRENA

## *Idoia Laka Lizaso*

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela. Haren oroimenez  
IV. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailaren 3an,  
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren Eliz-parrokian.  
Joango zareteneoi aldez aurretik eskerrak.

***Laster arte ezpainetan,  
utzi gaituzu penetan,  
orain gure ametsetan,  
bizirik zaude benetan,  
zeruko izarretan.***

Zure familia



IV. URTEURRENA

## *Idoia Laka Lizaso*

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela.

***Behar dugunetan ezin gara babestu zure besoetan,  
baina badakigu hor zaudela ezkutatuta gure bihotzetan.  
Zure irribarrea gogoan, ezin ahaztu eta ezin ikutu.  
Zergatik ez zauden gurekin, ezin dugu jasan, ezin dugu ulertu.***

***Maite zaitugu***


Azkoiti-Elgoibarko lagunak



**IKASTOLA EREDUA**

[www.elgoibarikastola.eus](http://www.elgoibarikastola.eus)

# HEZKUNTZA ERALDATZEN



Aurre-matrikulazioa:  
urtarrilaren 29tik  
otsailaren 9ra

[elgoibar@elgoibarikastola.eus](mailto:elgoibar@elgoibarikastola.eus)  
943 74 44 41

